# Bestelako Xedapenak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**1167**

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 2koa, Turismo sailburuordearena, turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzak emateko, 2009ko ekitaldirako deialdia jakitera ematen duena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko maiatzaren 17ko Aginduaren bitartez turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzen programa arautu zen (EHAAren 103. zenbakia, 2006ko ekainaren 1ekoa), eta 2008ko otsailaren 25eko Aginduak (EHAAren 57. zenbakia, 2008ko martxoaren 26koa) eta 2009ko otsailaren 4ko Aginduak aldatu egin dute agindu hori.

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira; ekitaldi honi dagokionez, abenduaren 29ko 19/2008 Legean dago ezarrita hori arautzeko modua, hain zuzen, 2009ko ekitaldirako EAEko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen legean.

Aipatutako aginduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, egokia da hor iragarritako diru-laguntzak 2009ko ekitaldian emateko deialdia egitea, eta, horretarako eman beharreko arauak ematea.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren aginduan aurreikusitako laguntzetarako 2009ko ekitaldirako deialdia egitea. Lehenengo agindu horren bitartez arautu zen turismoa sustatu eta merkaturatzeko laguntzak ematea.

Helburu hori betetzeko, 1.872.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2009ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren arabera.

Diru-kopuru hori aldatu ahalko da, betiere diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi ondoren, eta, baldin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada. Horrelakorik gertatuz gero, Turismo sailburuordeak horren berri emango du ebazpen baten bidez.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**1167**

RESOLUCIÓN de 2 de marzo de 2009, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística para el ejercicio 2009.

La Orden de 17 de mayo de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, regula el programa de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística (BOPV n.º 103, de 1 de junio de 2006). Fue modificada por Orden de 25 de febrero de 2008 (BOPV n.º 57, de 26 de marzo de 2008), y por Orden de 4 de febrero de 2009.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuya regulación, para el presente ejercicio, se establece en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009.

De conformidad a lo establecido en el artículo 5 de la citada orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto, de la presente resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2009 de las ayudas previstas en la Orden de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística.

Para este fin se destinarán 1.872.000 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2009.

Este importe podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Consumo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo.

***2. artikulua.***– Betekizunak.

Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak arautzen ditu Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren aginduak, eta laguntza horiek eskuratu ahal izateko, erreferentziako aginduaren 3. artikuluan ezarritakoarekin bat onuradun kondizioa izan beharko dute eskatzaileek.

***3. artikulua.***– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidearen eta inprimakien ereduak Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko lurralde-bulegoetan jaso daitezke, edo web orri honetan: www.euskadi.net/turismo.

2.– Eskabidea eta gainerako dokumentazio osagarria, Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko Zuzendaritzara zuzenduta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde bulegoetan aurkeztu behar dituzte eskatzaileek, zuzenean edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, zehaztutako moduetan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2009ko apirilaren 3an.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

***Bigarrena***.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 2a.

Turismo sailburuordea,
KORO GARMENDIA GALBETE.

***Artículo 2.***– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas destinadas a la promoción y comercialización turística, deberán ostentar la condición de beneficiarios, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la orden de referencia.

***Artículo 3.***– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado por cualquiera de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o podrá obtenerse en la web: www.euskadi.net/turismo.

2.– Los solicitantes deberán dirigir la solicitud y demás documentación complementaria a la Dirección de Promoción y Comercialización Turística, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 3 de abril de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de marzo de 2009.

La Viceconsejera de Turismo,
KORO GARMENDIA GALBETE.